



EBAZPENA, 2022KO ABENDUAREN 12KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN KIDEGOETAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOKO LANGILE FUNTZIONARIOEN ESTATU MAILAKO 2022/2023KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN, MEREZIMENDUEN BAREMOAREKIN, ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2022ko urriaren 14an),

EBATZI DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administraziooko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoko langile funtzionarioen estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoetako karrerako langile funtzionarioentzako estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.

Hirugarrena.- Lehiatzaileek zuzendu ahal dituzten akats formalak dituzten merezimenduen zerrenda argitara ematea.

Laugarrena.- Epe bat irekitzea, 2022ko abenduren 14tik 27ra, biak barne, erreklamazioak egiteko eta zuzengarri diren akatsak zuzentzeko.



Bostgarrena.- Erreklamazioak/zuzenketak Interneteko helbide honetan aurkeztu beharko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus>. NANarekin eta pasahitzarekin identifikatu ondoren, Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / (Erreklamatu nahi dituzun atalei dagokien esteka aukeratu beharko duzu)

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 12a